

zeren (eta) ... bait-/-(e)n ezen ... -(e)la

Mendeko perpausen hasiera markatzeko partikulak

nahiz eta ... izan

harik eta ... arte

baldin (eta) ... ba-

zeren (eta) ... bait-/-(e)n ezen ... -(e)la

Ikusia dugu, aurreko fitxa batzuetan, nola balia daitezkeen zenbait partikula (EZEN eta ZEREN) mendeko perpauis luze-konplexu mota batzuk hasieratik markatzeko.

[ikus ezen...-(e)la fitxa (2010-02-08) eta zeren...bait-/-(e)n fitxa (2010-03-18)]

harik eta ... arte

baldin (eta) ... ba-


zeren (eta) ... bait-/-(e)n ezen ... -(e)la

Ez dira partikula horiek bakarrak halako aukera ematen dutenak, eta oso kontuan hartzekoa da baliabide hori.

Esate baterako, ... -(e)N ARREN eta NAHIZ (eta)... -(e)N egiturak sinonimoak dira, baina bigarrenak bakarrik ematen digu aukera eroso hori.

nahiz eta ... izan /...-(e)n arren

- Kasu horretan, 40.000 dolar galtzeko aukera hartzen du jende gehienak, batere galerarik ez izateko aukera ere edukitzeko, **nahiz eta** espero izateko batez besteko galera 32.000 dolarrekoa **izan** kasu honetan ($40.000 \times 0,8$).



(ZIO bilduma: Zenbakirik gabe bizi)

nahiz eta ... izan /...-(e)n arren

- Kasu horretan, 40.000 dolar galtzeko aukera hartzen du jende gehienak, batere galerarik ez izateko aukera ere edukitzeko, espero izateko batez besteko galera kasu honetan 32.000 dolarrekoa **izan arren** ($40.000 \times 0,8$).

— Horrela antolaturik, amaierara iritsitakoan baino ez gara jabetzen halako mendeko perpausari dagokiola aurreko hitz multzoa. Zenbat eta luze-konplexuagoa menderatua, orduan eta baliagarriago aurretiko markak.

harik eta ... -(e)n arte / ... -(e)n arte

- Ez zuen inork ezagutuko atzerriratutako ile-urdindu arrotz hura, **harik eta** txakur zahar batek —orain mugitzeko gauza ez izateraino zahartua, noski, umetan ezagutu baitzuen (Francoren adin berekoa izan behar zukeen)— bera ezagutu, eta emeki milikatuko zuen **n arte**, eta orduan, isatsa mugitu, eta hil egingo zen txakurra, zainaldia beterik.

(ZIO bilduma: Antropologo bat Marten)



Mendeko perpausaren hasiera
markatzeko partikulak



harik eta ... -(e)n arte / ...-(e)n arte

- Ez zuen inork ezagutuko atzerriratutako ile-urdindu arrotz hura, txakur zahar batek — orain mugitzeko gauza ez izateraino zahartua, noski, umetan ezagutu baitzuen (Francoren adin berekoa izan behar zukeen)— bera ezagutu, eta emeki milikatuko zuen **n arte**, eta orduan, isatsa mugitu, eta hil egingo zen txakurra, zainaldia beterik.



baldin (eta) ... ba- / ... ba-

- Ez zegoen sororik landatzerik, haurrik sortzerik, zaharrik heriotzaren erresumara bidaltzerik, **baldin eta** iragaitea Pachamamari, Lurraren Jainkosari, koka eskaintzearen bitartez egiten ez **bazen**.



(ZIO bilduma: Argia munduaren ertzean)

baldin (eta) ... ba- / ... ba-

- Ez zegoen sororik landatzerik, haurrik sortzerik, zaharrik heriotzaren erresumara bidaltzerik, iragaitea Pachamamari, Lurraren Jainkosari, koka eskaintzearen bitartez egiten ez **bazen**.